

Hausnarketa jardunaldia automozioaren sektorean

2011/12/15

Elgoibarreko Meka institutuan Lanbide Heziketako Automozio zentroetako ordezkariak, administrazioko zuzendari eta aholkulariak, unibertsitateetako irakasleak eta enpresa pribatuetako zein automozio Klusterreko-eko agintariak elkartu ziren. Hauen helburu nagusia industria honetako etorkizuneko profesionalen prestakuntza sortzen ari diren aldaketen beharretara egokitzea da.

Aciae Klusterrak automozioaren sektoreko enpresak hurrengo urteetan behar izango dituzten langileei buruzko ikerketa bat egin ostean esan zuen, ikertzaile profila duten jarduera teknikoetako goi mailako graduatuen falta nabaritu dela. Ikusirik ibilgailu berriak sortzen ari garela, kotxe elektrikoa adibidez eta ingurumenak daukan garrantzia ekoizpenean, mantentze lanetan eta produktuan, Lanbide Heziketak hurrengo urteetako formazio eskaintzan egokitzapenak egitea beharrezkoa izango dela ondorioztatu zen.

Partaideetako bat Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko David Garrido irakaslea izan zen, zeinak kotxe elektrikoari buruz hitz egin zuen.

2010. urtean Mondragon Unibertsitateak MONDRAGON Automoción, Fagor Automation eta Fagor Ederlan-en laguntzaz City Car proiektua aurkeztu zuten aurretik ere Estatuko lehen kotxe elektrikoa homologatu zuten hauek. David Garridoz gain, Cie Automotive-ko Mikel Rico eta Euskadiko Automozio Klusterreko zuzendaria Aitor Ruiz-ek ere parte hartu zuten.



Automozioari buruzko Jaurdunaldia